

# URTEBURUAK OSPATZEN

Urteburuak\* ospatzean, arrazoi berdintsuekin ere, batzuek beste batzuek baino suerte hobea izaten dute: norbait oroitzen delako, inor oroitzen ez delako, edo bitartekoren bat oroitzen lokarri izan delako. Une politikoak ere bere aldia jokatzen du, noski. Eta mundu zabalean horrela delarik, gure txikiagoan ere bestetara ezinezkoa dirudi.

Eusebio Azkuek merezimendurik ba zuen, **Parnasora-ko Bidea**-ren egilea zen aldetik (1896). Baina, egia esan, haren seme Resurrekziori esker argitaratu zen olerki bilduma hura\*, egilearen heriotzetik hogeitahiru urte iragan eta gero. Izan ere, hiztegi, morfologia eta beste lan askoren egile, herri kanta, ipuin, jolas eta abarren biltzaile aipagarriaren aita izateak ba du bere itzala; eta ahantzi\* ezinezkoa genuen bere izen-deituraz luzeagoa zen hura: Eusebio Maria Dolores Azkue eta Barrundia (1813-1873).

Haren aina\* merezimendu —baina ez hainbeste ohore— izan duten batzuk ere gogoratu nahi ditugu.

Oker ez banago, Luis Eleizalde bergararraren sortzea 1873.ean izan zen. Lehen Morfologia labur baten egilea (1913), toki izenen bilduma jakingarri batena ere bai, eta Euskaltzaindiaren sortzaileetako bat. Egia esan, Donostian, 1969.eko irailaren\* 21ean, Euskaltzaindiaren urre ezteiak ospatzeko egin ziren hiltzaldietako bat hari buruz izan zen, Luis Mitxelena hizlari zelarik (**Euskera**, XVI).

Jose Bizente Etxagaray donostiarraren jaiotzako berehun urteak ere aurten betetzen dira (1773-1855). Haren kanta batek hau aitortzen digu:

**Festarik behar bada,  
bego Donostia.  
Betikoa du fama  
ondo merezia.**

**Bestetan ez bezala,  
hemen gazteria  
amaren sabeletik  
dator ikasia.**

Baina donostiarrok ez digute iaioitasun\* hori erakutsi; edo ba dirudi, hainbeste Eguberri kanta eta lhauteri\* kantaren egileaz ahantzirik daudela. Haren nortasunaz jabetzeko, «Auspoa» argitaldaria argitaratu zuen 35-36. zenbakia eskuratu beharra dugu.

Azkenik, nire ustez guztietan ahantziarena, Fr. Jose Kruz Etxeberria oihartzuarra da (1773-1853). Haren garaian, ez dakigu zergatik, Fr. Juan Mateo Zabalar bere bibliografian (**Noticia de las obras bascongadas**) sarrera emateko gogoko ez bazitzaion ere, guk ez genioke muxinik\* egingo. Etxeberriak, Salesko Frantziskoren **Deboziozko bizitzarako sarrera** argitaratu zuen (1821), eta beste zenbait elizliburu: **Ongi bizitzeko ta ongi iltzeko**

**laguntza** (1824), **Kristau Dotriña Euskaraz** (1822), **Kempisen Jesusen Imitazioa** (1829). Horietako batzuek zenbait argitaraldi ezagutu zituzten (lehendabizikoak sei guttienez, aita Villasantek bere **Historia de la Literatura Vasca**-n dioenez). Euskara arrunt\* idazten zuen, eta horregatik nonbait ez zuen beste batzuen ospea izan; baina, hala ere, harrigarria da nain ahantzia izatea. Herri herri hainbeste euskal jai antolatu da, merezimendu guttiago dutenen izenean.

J. SAN MARTIN

daude, **dagoz**  
digu, **deusku**  
digute, **deuskue**  
genioke, **geunskio**  
zitzaion, **jakon**



**Emakume, gizonezko eta umeen jantziak**

**Oihal, izare eta etxean behar diren  
gainerakoak**

**Bai emakume eta bai gizonezkoentzako  
jantzi aukeratuenak, azken  
modara eginak**

**HURI ZAHARRA**

**"Casco Viejo"**

**BILBO**